



Euskal Kulturaren ataka estu bat

* Aspaldian ez bezalako giro txarra dago berriro euskal kulturari: AEKren eta Gobernuaren arazoa, euskal prentsaren subentzioena, UZEIrena, euskara batuarena eta euskalkiena (bizkaierarena bereziki), Euskaltzaindiarena bide batez, Jaurlaritzaren Aholku-Batzordearena eta izendatu diren batzordezkariek "orekarena", Normalizazio Legearena Parlamentuan, HABE eta lau poliziena, beronen inguruko beste katramilekin, etab. Eskandalua besterik ez.

Eta eskandalu denak batera. Batak bestea lehertarazten zuela ematen bait zuen, apropos halaxe programatu balitz bezala. Lehertzeko zori-zorian zegoen ekaitza inondik ere.

* Urte pare bat isilik samar pasa dugu: ea politika berriarekin zer zetorren. Orain, jendea hurrengo hauteskundeak aipatzen hastearekin batera, istilua istiluaren gain dator egunetik egunera.

Istilu guztiek nolabait Gobernuarekin zerikusirik bazutenez, bidezkoa zen, gorabeheren azterketa politikoak entseiatzea, guzti honen azpian zer ote dabilen argitzeko. Istilu kultural bakoi-tzaren atzean adar politikoak somatzen ziren.

Oro har, ez dirudi Gobernuak eta Gobernuaren hizkuntz politikak (?) orain artean kulturako jendeari gustu handia eman dionik. Batez ere bi urte honetan Gobernuak ez du kolaborantza girorik sortu euskal kulturako jendearen artean.

Egia esan, badaukagu eusko Gobernu bat, baina, hizkuntzari begira, ba la daukagu euskal politikarik?

* Nire ustez, euskararen politika orok eta edozeinek abiapuntu obligatu bat dauka: euskaltzaleen elkartasun ahalik haundiena.

Gobernuak, edo Alderdiek, ez daukate euskararen politika batetarako beste tresnarik euskaltzaleak baino. Euskaltzaleok, ordea, jenero bitxi samarra gara munduan: gure motibazioek, lan moldeek, elkarrekiko harremanek, etab., berezten gaituzte; beti

instituzioetatik kanpora ibiliak gara, marginazioan edo anarkian (hizkuntzalari batzuk salbu: Mitxelena, etab., Unibertsitatean eta euskara ofizioz erabili dutenak); seguruena ez gara tratatzeko jende oso erraza ere, lehenengo egunetik erakunde publikoen esijentzietara jarri nahi bagaituzte behintzat. Euskaltzalea jenero berezia da, bestela egon ere ez litzateke euskaltzalerik egongo. Eta harekin lanegin nahi duen erakundeak adaptazio prozesu bat, aldi bat, aurretik onartzea on egingo du.

Gobernuak, nahi ere ez dakit zenbateraino nahiko zuen jende horrekin kontatu; nahi baldin bazuen behintzat, ez duela tratuetan asmatu, esan behar. Polliki-polliki berarekin elkarianera bildu ordez, behin eta berriro probokatu egin dituela, ematen bait du. Gaur ezin txarragoa da euskaltzaleen artean somatzen den Gobernuarekiko giroa.

* Ez dago euskara eta euskal kultura aurrera ateratzerik PNVaren kontra, edo Euskal Jaurlaritzaren kontra. Gehenez ere erresistentzian jarraitu ahal izango da, ez berkonkista bati ekin.

Eta berdin, nik uste: berkonkista bat abiatzerik ez dago, de facto daukagun indar euskaltzaleak elkartzuz eta organizatuz, plan orokor batetan integratuz, ez bada. Diren bezalakoxe gaurko euskaltzale zail horiek hain zuzen. Bestelakoak, edozein erakunderen agian gustuagokoak, sortuko dira bihar edo etzi. Gaur, ordea, gaur gaurkoz dauzkagunekin hasi behar.

Hor huts egin da. Ez da lortu Gobernuaren eta euskaltzaleen arteko elkarlan girorik, konfiantzarik. Alderantziz, euskararen arazoa modu berri batetan "politizatu" egin da. Zaila ikusten da ideologiaren ginetiko talde guztien elkarlanik euskararen alde.

Hasiera berri bat izan behar zuena, historia zahar batetan geratu da. Sekulako aukera eder bat berriz ere alferrikalduta. Desastre bat politikoki nahiz kulturalki. Gaitzerdi, halere, politikoentzat; pagatu, euskarak pagatu beharko bait du, beti bezala. ■